

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

MIRAKRUZ 10 C



Egilea eta data: Francisco Urcola; 1914

Deskribapena

Kantoiko eraikina, behe oina, jatorrizko lau goi oin eta 1950eko bi jasodura dituena, lehenengoa fatxada planoan (jatorrizko atiko atzeraemana ordezen edo eraldatzen duena) eta bigarrena beheko oinarekiko atzeraemana. Harlanduzko fatxada, alakan hormigoizko begiratokia duena. Bao hirukoitzak ditu jatorriz behe oinean. Proiektu komuna Iparragirre 3 eta 5, Mirakruz 10, 10A eta 10B eta Iztueta 3, 5, 7 eta 9 zenbakiekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berriazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotutakoak, behe oineko fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotutakoak barne.